

ITZULPENA¹

Araua: 2006/21/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA, 2006ko martxoaren 15ekoa, erauzketa-industrietako hondakinak
kudeatzeari buruzkoa, eta 2004/35/EE Zuzentaraua aldatzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik; itzulpenak ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*DIRECTIVA 2006/21/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 15 de marzo de 2006 sobre la gestión de los residuos de industrias extractivas y por la que se modifica la Directiva 2004/35/CE*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 102 de 11/4/2006*)

2006/21/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko martxoaren 15ekoa,
erauzketa-industrietako hondakinak kudeatzeari buruzkoa, eta 2004/35/EE Zuzentaraua aldatzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatua
—bereziki, Tratatua 175. artikulua 1. atala— aztertu dute,

baita Batzordearen proposamena ere,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen
irizpena¹ aztertu dute,

Eskualdeetako Komitearen irizpena² aztertu
dute,

Tratatua 251. artikuluan³ ezarritako
prozedurari jarraiki, Adiskidetzeko Komiteak
2005eko abenduaren 8an onarturiko testu
bateratua aztertuta,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) «Meatzaritzako segurtasuna: sektorean
gertatutako azken istripuen jarraipen-txostena»
izeneko Batzordearen jakinarazpenak ekimen
bat ezarri du lehentasunezko jarduera gisa
erauzketa-industrietako hondakin kudeaketa
arautzeko. Jarduera horrez gain, beste hainbat
ekimen ere badaude Kontseiluaren 96/82/EE
Zuzentaraua, istripu larrietan gai arriskutsuak
tarteko direnean sortzen diren arriskuen
kontrolari buruzkoa⁴, aldatzen duen Europako
Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko

¹ EO C 80 2004.3.30ekoa, 35. or.

² EO C 109 2004.4.30ekoa, 33. or.

³ Europako Parlamentuaren irizpena, 2004ko martxoaren 31koa (EO C 103 E 2004.4.29koa, 451. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2005eko apirilaren 12koa (EO C 172 E, 2005.7.12koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2005eko irailaren 6koa (Aldizkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea). Europako Parlamentuaren legegintzako ebazpena, 2006ko urtarrilaren 18koa, eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko urtarrilaren 30ekoa.

⁴ EO L 345 2003.12.31koa, 97. or.

abenduaren 16ko 2003/105/EE Zuzentarauari
jarraiki. Bestalde, dokumentu bat ere egin da
haitz esterilen eta meatzaritza-jardueratik
ateratako erauzketa- eta tratamendu-hondakin
kudeaketari lotutako teknika onenei buruz,
Kontseiluaren 1996ko irailaren 24ko 96/61/EE
Zuzentarauaren⁵ arabera. Zuzentaraua
kutsaduraren kontrola eta prebentzioa
bateratzeari buruzkoa da.

(2) Jakinarazpen horri lotuta, 2001eko
uztailaren 5eko Ebazpenen⁶, Europako
Parlamentuak irmoki adierazi zuen erauzketa-
industrietako hondakinei buruzko zuzentarau
baten premia zegoela.

(3) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren
2002ko uztailaren 22ko 1600/2002/EE
Erabakiak, Ingurumenaren arloan Erkidegoko
Seigarren Ekintza Programa ezartzen duenak⁷,
honako helburu hauek ezartzen ditu oraindik
sortzen diren hondakinei dagokienez: hondakin
horien arrisku-maila murriztea eta horiek ahalik
eta arrisku gutxien izatea, hondakin horiek
leheneratzeari ematea lehentasuna
—hondakinak birziklatzeari, bereziki—, ahalik
eta gehien murriztea guztiz ezabatu beharreko
hondakinak, segurtasun-baldintzetan ezabatzea
eta ezabatu beharreko hondakinak sortu ziren
tokitik ahalik eta gertuen tratatzea, baina, hala
ere, tratamendua beste tokietan bezain
eraginkorra izatea. Istripu eta hondamendiei
dagokienez, 1600/2002/EE Erabakiak
lehentasunezko jardueratzat jotzen du istripuak
—bereziki, meatzaritzarekin lotutako
istripuak— izateko arrisku nagusiak prebenitzen
laguntzen duten neurri berriak garatzea, bai eta
meatzaritzako hondakinatarako neurriak
garatzea ere. Gainera, 1600/2002/EE Erabakiak

⁵ EO L 257 1996.10.10ekoa, 26. or. Azken buruan
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren
166/2006 (EE) Erregelamenduak (EO L 33
2006.2.4koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

⁶ EO C 65 E 2002.3.14koa, 382. or.

⁷ EO L 242 2002.9.10ekoa, 1. or.

lehentasunezko jardueratzat hartzen du erauzketa-industrien kudeaketa iraunkorra sustatzea, ingurumenean duten eragina murrizteko.

(4) Ingurumenaren arloan Erkidegoan dagoen politikako helburuen arabera, beharrezkoa da gutxieneko baldintza batzuk ezartzea erauzketa-industrietako hondakinen kudeaketak ingurumenean eta gizakien osasunean sor dezakeen edozein kalte prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko. Hondakin horiek honako hauek dira: erauzketako eta tratamenduko hondakinak (hainbat teknikaren bitartez mineralen tratamendu-prozesutik sortzen diren hondakin solidoak edo lokatzak), haitz esterila eta estaldura-lurrak (erauzketa-jarduera batean mineral-meategi batera sartzeko mugitzen den materiala, bai eta ekoizpenaren aurreko garapen-fasean sortutakoa ere) eta lur begetala (lurraren goiko geruza); hau da, Kontseiluak hondakinei buruz 1975eko uztailaren 15ean egindako 75/442/EEE Zuzentarauan⁸ definitutako hondakinak.

(5) Garapen iraunkorrari buruz 2002. urtean Nazio Batuek egindako Munduko Gailurrean, garapen iraunkorrari buruz hartutako erabakiak ezartzeko Johannesburgeko Plana onartu zen, eta Planaren 24. atalaren arabera, beharrezkoa da baliabide naturalak babestea, horiek baitira garapen ekonomiko eta sozialaren oinarria. Gainera, bertan behera utzi behar da baliabide naturalen degradaziorako joera, baliabide horien oinarria modu iraunkor eta integratuan kudeatuta.

(6) Beraz, Zuzentarau horren barruan jasota egon behar du lehorreko erauzketa-industrietako hondakinen kudeaketak; hau da, baliabide mineralen prospekziotik, erauzketatik (ekoizpenaren aurreko garapen-fasea barne), tratamendutik eta biltegitzetik ateratako hondakinen kudeaketak, bai eta meategiak ustiatzetik ateratako hondakinenak ere. Hala ere, kudeaketa horrek 75/442/EEE Zuzentarauan xedatutako oinarriak eta lehentasunak jaso behar ditu; izan ere, Zuzentarau horren 2. artikuluko 1. ataleko b) letraren ii) puntuaren arabera, Zuzentarau hori aplikatu behar da erauzketa-

industrietako hondakinen kudeaketan, Zuzentarau honetan jasota ez dauden alderdi guztietan.

(7) Bikoizketarik eta gehiegizko administrazio-baldintzarik egon ez dadin, Zuzentarau honen aplikazio-eremua Zuzentarauko helburuak betetzeko lehentasunezko jardueratzat hartu diren etara bakarrik mugatzen da.

8) Beraz, Zuzentarau honen xedapenak ez zaizkie ezartzen erauzketa- edo tratamendu-prozesuarekin zuzenean lotuta ez dauden mineralen erauzketako edo tratamenduko jardueretan sortzen diren hondakin-fluxuei; besteak beste, elikagai-hondakinei, olio erabiliei, erabiltzeko moduan ez dauden ibilgailuei eta pila eta metagailu gastatuei. Hondakin horien kudeaketa honako hauek arautu behar dute: 75/442/EEE Zuzentaruak, hondakinak botatzeari buruzko Kontseiluaren 1999/31/EE Zuzentaruak¹, 1999ko apirilaren 26koak, edo Erkidegoko berariazko beste edozein egintza juridikok. Hori da prospekzio bateko, meategiko ustiatetako edo tratamenduko instalazio bateko hondakinen kasua, baldin eta ondoren ez badira eramaten Zuzentarau honetan azaltzen den erauzketa-hondakinen instalazio batera.

(9) Honako kasu hauetan ere ez da ezartzen Zuzentarau hau: baliabide mineralen urpeko prospekziotik, erauzketatik eta tratamendutik ateratako hondakinetan eta uren injekzioan eta urpeko uren berrinjekzioan. Aldiz, hondakin inerteek, erauzketa-hondakin ez arriskutsuek, kutsatu gabeko lurrak eta zohikatzen erauzketatik, tratamendutik edo biltegitzetik ateratako hondakinek baldintza-kopuru mugatu bat soilik bete behar dute, ingurumenerako arrisku gutxiago baitute. Hondakin ez inerte eta ez arriskutsuei dagokienez, Estatu kideek zenbait baldintza murriztu edo kendu ahal izango dituzte. Hala ere, salbuespen horiek ezingo dituzte ezarri A kategoriako hondakinen instalazioetan.

(10) Gainera, Zuzentarau honen barruan jasota dago erauzketa-industrietako hondakin erradioaktiboen kudeaketa, baina ez dira bertan sartzen erradioaktibitatearen berariazko

⁸ EO L 194 1975.7.25ekoa, 39. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 (EE) Erregelamenduak (EO L 284 2003.10.31koa, 1. or.) aldatutako Zuzentaraua.

¹ EO L 182 1999.7.16koa, 1. or. 1882/2003 (EE) Erregelamenduak aldatutako Zuzentaraua.

alderdiak. Horiek Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa (Euratom) eratzekeo Tratatuan ageri dira.

(11) 75/442/EE Zuzentarauan zehaztutako oinarri eta lehentasunen arabera —bereziki, 3. eta 4. artikuluen arabera—, Estatu kideek bermatu beharko dute erauzketa-industrien sektoreko erakunde ustiatzaileek beharrezko neurri guztiak hartzen dituztela erauzketa-industrietako hondakinen kudeaketak ingurumenari eta pertsonen osasunari egiten dizkion ondorio kaltegarriak edo egin diezazkiokeenak ahalik eta gehien murrizteko edo bertan behera geratzeko.

(12) Neurri horiek dauden teknika onenen kontzeptuan oinarritu behar dute, besteak beste, 96/61/EE Zuzentarauan definitutakoaren arabera. Teknika horiek ezartzen direnean, Estatu kideek erabaki behar dute garaia iristean zer erataratu hartu behar diren kontuan hondakin-instalazioaren ezaugarri teknikoak, kokapen geografikoa eta tokiko ingurumen-baldintzak.

(13) Estatu kideek bermatu behar dute erauzketa-industriek hondakinak kudeatzeko plan egokiak egiten dituztela erauzketa-industrietako hondakinak prebenitu edo murrizteko, tratatzeko, leheneratzeko eta ezabatzeko. Plan horiek egituratzeko garaian kontuan hartu behar da honako alderdi hauek bermatu behar dituztela: hondakinak kudeatzeko aukeren plangintza egokia egingo dela, hondakin gutxiago sortuko direla, ez direla horren kaltegarriak izango eta hondakinen leheneratzea sustatuko dela. Gainera, erauzketa-industrietako hondakinak osatzen diren arabera bereizi behar dira, ahal den neurrian, aurreikusita bezala soilik erreakziona dezatela bermatzeko.

(14) Istripuak egoteko arriskua murrizteko eta ingurumenaren eta pertsonen osasunaren babes-maila altua bermatzeko, Estatu kideek ziurtatu behar dute A kategoriako hondakin-instalazioen erakunde ustiatzaileek politika bat hartu eta ezarriko dutela hondakinekin lotutako istripu larrien prebentziorako. Prebentzio-neurriei dagokienez, segurtasuna kudeatzeko sistema bat eta istripua egoten den kasuetarako larrialdiplanak eman behar dira, eta, horrez gain, segurtasun-informazioa zabaldu behar zaie istripu larriren bat izan dezaketenei. Istripuren bat egonez gero, ingurumenari egiten dizkion kalteak edo egin diezazkiokeenak

arintzeko berariazko informazio guztia eman beharko diete erakunde ustiatzaileek agintari eskudunei. Baldintza berezi horiek ez zaizkie ezarri behar 96/82/EE Zuzentarauaren aplikazio-eremuaren barruan jasota dauden erauzketa-industrietatik ateratako hondakinen instalazioei.

(15) Hondakin-instalazio bat A kategorian sailkatzeko ez dira Erkidegoko gainerako legerian —bereziki, 92/91/EEE¹ eta 92/104/EEE² Zuzentaruatan— jasota dauden erauzketa-industrietako langileen segurtasuna eta osasuna babesteko arriskuak bakarrik kontuan hartu behar.

(16) Erauzketa-industrietako hondakinen kudeaketak izaera berezia duenez, beharrezkoa da berariazko prozedurak jartzea eskaerak egiteko eta baimenak emateko, mota horretako hondakinak hartuko dituzten hondakin-instalazioetan. Gainera, Estatu kideek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte agintari eskudunek baimenen baldintzak aldiari behin aztertzen dituztela, eta, beharrezkoa denean, eguneratu egiten dituztela bermatzeko.

(17) Informazioa jasotzeko, herritarrek erabakietan parte hartzeko eta ingurumenaren arloko prozedura judizialean esku hartzeko Nazio Batuen 1998ko ekainaren 25eko Hitzarmenaren arabera (Aarhuseko Hitzarmenaren arabera), Estatu kide guztiak bermatu beharko dute herritarrek jasoko dutela hondakinak kudeatzeko baimen-eskaera guztien berri, eta interesa duten herritarrei kontsulta egingo zaiela hondakinak kudeatzeko baimen bat eman aurretik.

¹ Kontseiluaren 92/91/EEE Zuzendaraua, 1992ko azaroaren 3koa, zundaketa bidez erauzten duten industrietako langileen segurtasuna eta osasuna hobeto babesteko gutxieneko xedapenei buruzkoa (berariazko hamaikagarren Zuzendaraua, 89/391/EEE Zuzentaruako 16. artikuluen 1. atalaren arabera) (EO L 348 1992.11.28koa, 9. or.)

² Kontseiluaren 92/104/EEE Zuzendaraua, 1992ko abenduaren 3koa, aire zabalean edo lurpean erauzten duten industrietako langileen segurtasuna eta osasuna hobeto babesteko gutxieneko xedapenei buruzkoa (berariazko hamabigarren Zuzendaraua, 89/391/EEE Zuzentaruako 16. artikuluko 1. atalaren arabera) (EO L 404 1992.12.31koa, 10. or.)

(18) Argi adierazi behar dira erauzketa-industrietako hondakinen instalazioei zer baldintza eskatuko zaizkien kokapenean, kudeaketan, kontrolean, itxieran eta prebentzio-eta babes-neurrietan, epe laburrean eta epe luzean, ingurumenari kalterik ez egiteko, eta, bereziki, lurlean lixibiatuak infiltratuta lurpeko urak ez kutsatzeko.

(19) Erauzketa-industrietako hondakinen kasuan, argi definitu behar dira erabiltzen diren A kategoriako hondakinen instalazio-motak; kontuan hartuta instalazio horien funtzionamendutik ateratzen den kutsadurak zer ondorio sor ditzakeen, eta aintzat hartuta istripua gertatzean instalazioko hondakinen ihesa egoteko arriskua dagoela.

(20) Hondakinak leheneratzeko indusketetako zuloetan jartzen badira berriro edo mineralak ateratzeko prozesuarekin lotuta eraikuntzarako erabiltzen badira —besteak beste, eraikuntzarako edo mantentze-lanetarako, makinak toki horietara iristeko zuloak estaltzeko, garraio-arrapakak egiteko, holtzak, segurtasun-hesiak edo eustormak eraikitzeko—, kasu horietan ere hainbat baldintza bete behar dituzte gainazaleko urak eta/edo lurpeko urak babesteko, hondakin horiek egonkor egongo direla ziurtatzeko eta jarduera horiek amaitu ostean ere jarraipen egokia egingo zaiela bermatzeko. Beraz, aipatutako hondakinak ez dira Zuzentarau honetan «hondakin-instalazioentzat» bakarrik ezarri diren baldintzetara lotuta egongo, hondeaketa-zuloei buruzko berariazko xedapenean zehatz-mehatz aipatzen diren baldintzen kasuan izan ezik.

(21) Erauzketa-industrietako hondakinen instalazioak behar bezala eraiki eta mantentzen direla bermatzeko, Estatu kideek neurri egokiak hartu behar dituzte instalazioak nola diseinatu, non kokatu eta nola kudeatu teknikoki prestatuta dauden pertsonak erabakiko dutela bermatzeko. Erakunde ustiatzaileak eta erakunde horietako langileak jasotako prestakuntzak eta ezagutzak pertsona horiei behar duten trebetasuna emango dietela bermatu behar da. Gainera, agintari eskudunek eskubidea izan behar dute nahi bezala ikusteko erakunde ustiatzaileak neurri egokiak hartzen dituztela hondakin-instalazio berrien eraikuntzari eta mantentze-lanei dagokienez edo jada dauden hondakin-instalazioak zabaltzeari edo aldatzeari dagokionez —hondakin-instalazioa itxi ondorengo fasea barne—.

(22) Hondakin-instalazioak itxi ondoren egiten diren ustiapen- eta kudeaketa-faseetan, beharrezkoa da kontrol-prozedura komunak ezartzea. A kategoriako hondakin-instalazioa itxi ondoren, jarraipena eta kontrola egiteko kudeaketa-denboraldi bat ezarri behar da, hondakin-instalazio bakoitzak duen arriskuaren kudeaketa proportzionala, 1999/31/EE Zuzentarauak agintzen duenaren arabera.

(23) Beharrezkoa da erauzketa-industrietako hondakinen instalazioak ixteko garaia eta moduak definitzea, eta itxi ondorengo garaian erakunde ustiatzaileak zer betebeharrak eta ardura izango dituen ezartzea.

(24) Estatu kideek kudeaketaren jarraipena eta kontrola egiteko dauden teknika onenak ezartzera behartu behar dituzte erauzketa-industrietako erakunde ustiatzaileak, uraren eta luraren kutsadura prebenitzeko eta beraien hondakin-instalazioek ingurumenean eta pertsonen osasunean izan ditzaketan ondorio kaltegarriak identifikatzeko. Gainera, uraren kutsadura ahalik eta gehien murrizteko, urmasara isurtzen diren hondakinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauko, urei buruzko politikaren arloan Erkidegoaren jarduera-esparrua ezartzen duen Zuzentarauko³, xedapenen arabera isuri behar dira. Bestalde, ondorio kaltegarri eta toxikoak dituztela ikusita, erauzketa-industria jakin batzuetatik erauzketa-eta tratamendu-hondakinen baltsetara iritsitako zianuro-kontzentrazioak eta zianuroaren konposatuen kontzentrazioak ahalik eta maila txikienetara murriztu behar dira, dauden teknika onenen bitartez. Beraz, gehieneko kontzentrazio-mailak ezarri behar dira ondorio horiek prebenitzeko, Zuzentarau honetako berariazko baldintzei jarraituz.

(25) Erauzketa-industrietako hondakinen instalazio bat ustiatzen duen erakundeak finantza-berme bat edo baliokide bat jarri beharko du, Estatu kideek ezarri beharko duten prozedura baten arabera, baimena jasotzeagatik erakundeak dituen betebeharrak guztiei —hondakinen instalazioa ixtearekin eta mantentzearekin lotutako betebeharrak barne—

³ EO L 327 2000.12.22koa, 1. or. 2455/2001/EE Erabakiak (EO L 331 2001.12.15ekoa, 1. or.) aldatutako Zuzentaraua.

aurre egin ahal izango diela ziurtatzeko. Erakundearekin loturarik izango ez duen hirugarren pertsona prestatu batek hondakin-instalazioa egondako lurra leheneratzeko kostua ordaintzeko adinakoa izan beharko du finantza-bermeak —hondakin-instalazioa bera ere barne—, 5. artikulua arabera egindako hondakin kudeaketa-planean deskribatutakoaren arabera, eta 7. artikuluan xedatutako baimenak hala eskatuta. Horrez gain, beharrezkoa da berme hori hondakin-instalazioan isurketa-jarduerak hasi aurretik jartzea eta aldi behin doitzea. Gainera, kutsatzen duenak ordaindu egingo du printzipioari jarraiki, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/35/EE Zuzentarauaren, ingurumen-kalteak prebenitzeko eta konpontzeko ingurumen-erantzukizunari buruzko Zuzentarauaren¹, arabera, komeni da argitzea erauzketa-industrietako hondakin instalazioak ustiatzen dituzten erakundeek erantzukizun zibileko estaldura egokia izan behar dutela beraien jarduerak ingurumenean sortzen dituen kalteei edo jarduerak berehala kalteak sortzeko dagoen arriskuari erantzuteko.

(26) Erauzketa-industrietako hondakin instalazioak ustiatzean mugaz haraindi ondorio kaltegarriak izateko arriskua badago ingurumenean edo gizakien osasunean, beste Estatu kide baten lurraldean, prozedura komun bat egon beharko du auzoko herrialdeen artean kontsultak egin ahal izateko. Prozedura horrek bermatu beharko du agintarien artean informazio-truke egokia egon dadila, eta kaltetutako herritarrek behar bezalako informazioa izan dezatela beste Estatu kideko ingurumenean ondorio kaltegarriak izan ditzaketan hondakin-instalazioei buruz.

(27) Estatu kideek bermatu beharko dute agintari eskudunek ikuskapen-sistema eraginkorra edo kontrol-neurri baliokideak prestatuko dituztela erauzketa-industrietako hondakin instalazioei dagokienez. Isuriak hasi aurretik, ikuskapen bat egin beharko da baimenean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Erakunde ustiatzaileak baimenean ezarritako betebeharrak bete beharko ditu. Gainera, Estatu kideek ziurtatu beharko dute erakunde ustiatzaileek eta ondorengoek hondakin-instalazio horietako erregistro eguneratuak dituztela eta erakunde ustiatzaileek ondorengoei

helaraziko dietela hondakin-instalazioaren eta instalazio horretan egindako jardueren informazioa.

(28) Estatu kideek txostenak bidali beharko dituzte aldi behin Batzordera, Zuzentarau hau nola ezartzen den jakiteko, eta, horrez gain, istripuei edo ia gertatutako istripuei buruzko informazioa. Txosten horiek oinarri hartuta, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari eman beharko die informazioa.

(29) Estatu kideek erabaki beharko dute Zuzentarau honetako xedapenetan azaltzen diren arau-hausteei zer zigor-erregimen ezarriko dieten eta zigor horiek ezarriko direla bermatu beharko dute. Zigor horiek eraginkorrak, tamainakoak eta disuasiokoak izan beharko dute.

(30) Estatu kideek ardura hartu beharko dute beraien lurraldeetan kokatutako hondakin-instalazio itxien inbentario bat egiteko —bai eta abandonatutako instalazioena ere—, ingurumenean eragin larriena zeintzuek duten edo epe labur edo ertainean pertsonen osasunerako edo ingurumenerako mehatxu zein bihur daitezkeen jakiteko. Inbentario horiek oinarri gisa balioko dute neurri-programa egoki bat egiteko.

(31) Batzordeak ziurtatu beharko du behar bezala trukutzen dela honako informazio zientifikoa eta teknikoa: Estatu kide bakoitzak hondakin-instalazio itxien inbentarioa egiteko moduaren informazioa, eta, horrez gain, hondakin-instalazio itxiak leheneratzearen gainean Zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko Estatu kideei laguntzeko metodologiaren garapenari buruzko informazioa. Gainera, Estatu kideetan eta Estatu kideen artean informazio-trukea bultzatu behar da dauden teknika onenen gainean.

(32) Hitzarmeneko 6. artikulua koherentziaz aplikatzeko, ingurumena babesteko eskakizunen barruan sartu behar da Erkidegoko politikak eta ekintzak egitea, garapen iraunkorra sustatzeko.

(33) Zuzentarau hau kontuan hartu beharreko tresna baliagarria izan daiteke; izan ere, ikusi dugu garapenerako laguntzaren atalean Erkidegoaren finantziazioa jasotzen duten proiektuetan, ingurumenerako ondorio

¹ EO L 143 2004.4.30ekoa, 56. or.

kaltegarriak ahal den neurrian saihestu edo murrizteko hartu beharreko neurriak azaltzen direla. Ikuspuntu hori bat dator Tratatu 6. artikuluekin, bereziki, Erkidegoak garapenerako lankidetzaren eremuan duen politikan ingurumena babesteko eskakizunak sartzeari dagokionez.

(34) Estatu kideek ezin dute beraien kabuz lortu Zuzentarau honen helburua; hau da, ezin dute beraien kasa hobetu erauzketa-industrietako hondakinen kudeaketa. Izan ere, hondakin horiek gaizki kudeatuz gero, mugaz haraindiko kutsadura sortzeko arriskua dago. Kutsatzen duenak ordaindu behar du printzipioari jarraiki, kontuan izan behar da, besteak beste, erauzketa-industrietako hondakinek ingurumenean kalteak egiteak eta Estatu kide bakoitzak printzipio hori desberdin aplikatzeak desberdintasun handiak sor ditzakeela eragile ekonomikoen finantzakargan. Bestalde, erauzketa-industrietako hondakinen kudeaketan politika nazional desberdinak egoteak zaildu egiten du mota horretako hondakinen kudeaketa seguru eta arduratsuan gutxieneko maila bat lortzea eta Erkidego osoan hondakin horiek leheneratzeko bidean aurrerapausoak egitea. Beraz, Zuzentarau honek zer garrantzi eta ondorio dituen kontuan hartuta, errazagoa izango da Erkidegoan lortzea Zuzentaraan azaltzen den helburua. Erkidegoak neurriak hartu ahal izango ditu Tratatu 5. artikuluan jasota dagoen subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako heinekotasunaren printzipioaren arabera, Zuzentarau honek ez du beharrezkoa baino haratago joko helburu hori lortzeko.

(35) Zuzentarau hau ezartzeko beharrezko neurriak Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren¹ arabera onartuko dira. Erabaki horrek ezartzen ditu Batzordeari egotzitako betearazteko eskumenak betetzeko prozedurak.

(36) Zuzentarau honen barne-zuzenbidera sartzeko unean, arautu egin behar da martxan dauden hondakin-instalazioen ustiapena, zehaztutako epearen barruan beharrezko neurriak hartzeko, Zuzentarau honetan jasota dauden eskakizunetara egokitu ahal izateko.

(37) «Legeak hobeto egiteko» erakundearteko akordioaren 34. atalaren² arabera, beraien taulak ezartzera bultzatzen dira Estatu kideak, beraien eta Erkidegoaren interesarengatik, eta, ahal den neurrian, Zuzentarau honetako xedapenak eta hartuta dituzten xedapen nazionalak bat datozela erakutsi eta publiko egitera.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua

Erauzketa-industrietako hondakinen kudeaketak ingurumenaren gainean —batez ere uraren, airearen, luraren, faunaren, floraren eta paisaiaren gainean— izan ditzakeen ondorio kaltegarriak eta gizakien osasunean sor ditzakeen arriskuak ahal den neurrian prebenitu edo murrizteko neurriak, prozedurak eta argibideak ezartzen ditu Zuzentarau honek.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Zuzentarau hau erauzketa-hondakinen kudeaketari aplikatuko zaio; hau da, baliabide mineralen prospekziotik, erauzketatik, tratamendutik eta biltegitzetik ateratako hondakinen kudeaketari, bai eta meategiak ustiatzetik ateratako hondakinen kudeaketari ere. Aurrerantzean, «erauzketa-hondakin» esango zaie horiei. Nolanahi ere, 2. eta 3. ataletako xedapenetan jasotakoa ere bete behar da.

2. Zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpora geratuko dira honako hauek:

a) baliabide mineralen prospekziotik, erauzketatik eta tratamendutik sortzen diren hondakinak, bai eta meategiak ustiatzetik sortzen direnak ere, baina jarduera horietatik zuzenean ateratzen ez direnak;

b) baliabide mineralen urpeko prospekzio eta erauzketatik eta horien tratamendutik ateratako hondakinak;

c) uren injekzioa eta ponpatutako urpeko uren berrinjekzioa, 2000/60/EE Zuzentarauko 11. artikuluko 3. ataleko j) letrako lehen eta bigarren

¹ EO L 184 1999.7.17koa, 23. or.

² EO C 321 2003.12.31koa, 1. or.

gidoietako definizioaren arabera, artikuluko horrek baimentzen duen neurrian.

3. Baliabide mineralen prospekzioetik, erauzketatik, tratamendutik eta biltegitratetik, meategien ustiapenetik eta zohikatzaren erauzketatik, tratamendutik edo biltegitratetik ateratako hondakin inerteak eta lur ez kutsatua ez dituzte honako xedapen hauek arautuko, baldin eta ez badira A kategoriako hondakin-instalazio batean sartzen: 7. eta 8. artikulua, 11. artikuluko 1. eta 3. atalak, 12. artikulua, 13. artikuluko 6. atala eta 14. eta 16. artikulua.

Agintaritzak eskudunak eskakizun horiek murriztu ahal izango ditu edo aplikatu gabe uzteko aukera izango du baliabide mineralen prospekzioetik ateratako hondakin ez arriskutsuak biltegitratzeari dagokionez, baldin eta ez bada petrolio-prospekzioa eta igeltsua eta anhidrita ez diren ebaoriten prospekzioa. Gauza bera egin ahal izango du zohikatzaren erauzketatik, tratamendutik edo biltegitratetik ateratako hondakinen isuriarekin edo lur ez kutsatuekin, baldin eta 4. artikuluko eskakizunak betetzen direla argi badago.

Estatu kideek murriztu edo bertan behera utzi ahal izango dituzte 11. artikuluko 3. ataleko, 12. artikuluko 5. eta 6. ataleko, 13. artikuluko 6. ataleko eta 14. eta 16. artikuluetako eskakizunak, hondakin ez arriskutsu ez inerteak badira, baldin eta ez badira A kategoriako instalazio batean jartzen.

4. Zuzentzarau honen aplikazio-eremuan sartzen diren hondakinak ez dira 1999/31/EE Zuzentzarauan jasotakoari lotuta egongo; nolana ere, kontuan hartu behar dira Erkidegoko beste araudi batzuk.

3. artikulua

Definizioak

Zuzentzarau honen ondorioetarako, era honetara ulertuko dira hitz hauek:

1) «hondakinak»: hondakinak, 75/442/EEE Zuzentzarauko 1. artikuluan, a) letran definitzen diren arabera;

2) «hondakin arriskutsuak»: hondakin arriskutsuak, Kontseiluaren 1991ko abenduaren 12ko 91/689/EEE Zuzentzarauko, hondakin

arriskutsuei buruzko Zuzentzarauko³, 1. artikuluan, 4. atalean definitzen diren arabera;

3) «hondakin inerteak»: transformazio fisiko, kimiko edo biologiko handirik izaten ez duten hondakinak. Hondakin inerteak ez dira disolbagarriak ezta erregaiak ere, ez dute beste era batera erreakzionatzen ez fisikoki ez kimikoki, ez dira biodegradagarriak, ez dute eragin negatiborik beste materietan haiekin harremanetan jartzean, eta, horrela, ez dute ingurumena kutsatzeko eta gizakien osasunean kalte egiteko arriskurik. Erabateko lixibiagarritasunak, hondakinen kutsatzaile-kopuruak eta lixibiatuaren ekotoxikotasunak oso txikiak izan behar dute, eta, bereziki, ez dute arriskutsuak izan behar ez lurrazaleko, ez lurpeko uren kalitatearentzat.

4) «lur ez kutsatua»: erauzketan, lurrazalaren goiko geruzatik kentzen den lurra, kutsatu gabe dagoen lurra, lur hori kokatuta dagoen Estatu kidearen legeria nazionalaren arabera, bai eta Erkidegoaren legeriaren arabera ere;

5) «baliabide minerala» edo «minerala»: substantzia organiko edo ez-organiko baten lurrazalean berez dagoen hobia; besteak beste, energia-erregaiak, mineral metalikoak, mineral industrialak eta eraikuntzarako mineralak, ura izan ezik;

6) «erauzketa-industriak»: merkataritzarako baliabide mineralak lurrazaletik edo lurpetik erauzten dituzten establezimendu eta enpresa guztiak —bai zulaketa bidez erauzten dutenak, bai ateratako materiala tratatzen dutenak ere—;

7) «itsaspea»: marea normalen edo tarteko mareen itsasbeheraren lerrotik abiatuta, zabaltzen den itsasoa eta itsas hondoa;

8) «tratamendua»: baliabide mineralei —harrobiak erauztetik ateratzen diren mineralak barne— aplikatzen zaien prozesua edo prozesu mekaniko, fisiko, biologiko, termiko edo kimikoen konbinazioa, minerala ateratzeko. Prozesu horren barruan sartzen dira neurria aldatzea, sailkatzea, banatzea, lixibiatzea eta aurretik baztertutako hondakinak berriro prozesatzea, baina kanpora geratzen dira fusio-jarduerak, prozesu industrial termikoak (kareharriaren errausketa izan ezik) eta prozesu metalurgikoak;

³ EO L 377 1991.12.31koa, 20. or. 166/2006 (EE) Erregelamenduak aldatutako Zuzentzaraua.

9) «erauzketako eta tratamenduko hondakinak»: balio txikieneko harritik balio handiko mineralak ateratzeko, mineralak banaketa-prozesuen bidez (esaterako, xehatzearen, birrinketaren, tamainaren arabera sailkatzearen, flotazioaren eta beste teknika fisiko-kimiko batzuen bitartez) tratatu ostean geratzen diren hondakin solidoak edo lokatzak;

10) «hondakindegia»: hondakin solidoak azalean uzteko eraikitako egitura;

11) «presa»: ura eta/edo hondakinak baltsa batean edukitzeko edo gordetzeko diseinatu eta eraikitako egitura;

12) «baltsa»: ale xeheko hondakinak ezabatzeko egitura naturala edo eraikitako egitura. Hondakin horiek erauzketako eta tratamenduko hondakinak izaten dira normalean. Baltsek ur libreare ere izaten dute, baliabide mineralen tratamendutik eta tratamendu horretarako erabilitako ura urberrizetik eta birziklatzetik ateratako ura;

13) «azido ahulean disozia daitekeen zianuroa»: pH jakin batean, azido ahularekin disoziatzen diren zianuroa eta zianuro-konposatuak;

14) «lixibiatua»: hondakin-instalazio batean gordeta dauden hondakinetatik iragazten diren likido guztiak edo hondakin-instalazio batean daudenak, drainatze kutsatua barne. Lixibiatuak ondorio kaltegarriak izan ditzake ingurumenean ez bada behar bezala tratatzen;

15) «hondakin-instalazioa»: erauzketa-hondakinak —bai hondakin solidoak, bai likidoak, bai soluzioak, bai esekitakoak— metatzeko edo gordetzeko izendatutako edozein gune, honako epe hauetarako:

— batere eperik gabe A kategoriako instalazioetarako eta hondakinen kudeaketa-planeari arriskutsuz hartutako hondakin-instalazioetarako,

— sei hilabetetik gorako epea, aurreikusi gabe sortu diren hondakin arriskutsuen instalazioetarako,

— urtebetetik gorako epea, hondakin ez arriskutsu ez inerteen instalazioetarako,

— hiru urtetik gorako epea, lur ez kutsatuen, prospekzioko hondakin ez arriskutsuen edo zohikatzen eta hondakin inerteen erauzketatik, tratamendutik eta biltegitratzetik ateratako hondakinen instalazioetarako.

Instalazio horien barruan sartzen dira mota guztietako presak eta hondakinak edukitzeko, atxikitze edo gordetzeko balio duten egiturak edo instalazioan beste egitekoren bat duten egiturak, bai eta, besteak beste, hondakindegia eta baltsak, baina ez hondakinak leheneratzeko eta eraikuntzarako minerala atera ostean hondakinekin betetako hondeaketa-zuloak.

16) «istripu larria»: Zuzentarau hau aplikatzen den edozein establezimenduan erauzketa-hondakinen kudeaketaren barruko eragiketaren bat egitean jazotako gertaera. Gertaera horrek arrisku larria eragiten du gizakien osasunean eta/edo ingurumenean, bai berehala edo denbora batera, tokian bertan edo tokitik kanpora;

17) «gai arriskutsua»: 67/548/EEE¹ edo 1999/45/EE² Zuzentarauen arabera, arriskutsuak diren gaiak, nahasketak edo prestakinak.

18) «dauden teknika onenak»: dauden teknika onenak, 96/61/EE Zuzentarauko 2. artikuluko 11. atalean definitzen diren arabera;

19) «ur-masa hartzailea»: lurrazaleko urak, lurpeko urak, trantsizio-urak eta kostako urak, hurrenez hurren 2000/60/EE Zuzentarauko 2. artikuluko 1., 2., 6. eta 7. ataletan definitzen diren arabera;

20) «leheneratzea»: hondakin-instalazio batek kaltetutako luraren tratamendua, lurra egoera onera bueltatzeko, batez ere luraren kalitateari, faunari, habitat naturalei, ur gezatako sistemei, paisaiari eta erabilera onuragarri egokiei dagokienez;

21) «prospekzioa»: balio ekonomikoko hobi mineralen bilaketa —laginketa, erabateko laginketa, zulaketa eta zangak barne—, baina gordailu horien ustiapenerako behar diren lan

¹ Kontseiluaren 67/548/EEE Zuzentaraua, 1967ko ekainaren 27koa, gai arriskutsuak sailkatu, bildu eta etiketatzearen gainean dauden legezko xedapen, arauzko xedapen eta administrazio-xedapenen hurbilketari buruzkoa (EO 196 1967.8.16koa, 1. or.). Azken buruan Batzordearen 2004/73/EE Zuzentarauak (EO L 152 2004.4.30ekoa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

² Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999/45/EE Zuzentaraua, 1999ko maiatzaren 31koa, prestakin arriskutsuak sailkatzearen, ontziratzearen eta etiketatzearen gainean Estatu kideek dituzten legezko xedapen, arauzko xedapen eta administrazio-xedapenen hurbilketari buruzkoa (EO L 200 1999.7.30ekoa, 1. or.). Azken buruan Batzordearen 2006/8/EE Zuzentarauak (EO L 19 2006.1.24koa, 12. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

guztiak eta jada badagoen erauzketa-jarduera batekin zuzenean lotutako jarduerak kanpo.

22) «herritarrak»: pertsona fisiko edo juridiko bat edo gehiago, eta, legeria edo usadio nazionalen arabera, pertsona horien elkarteak, erakundeak edo taldeak;

23) «interesa duten herritarrak»: ingurumen arloko prozesu erabakitzaileak kaltetutako herritarrak edo kalte egin diezaiekeen herritarrak, edo interesa dutenak, Zuzentarau honetako 6. eta 7. artikuluen arabera. Definizio honen arabera, ingurumena babestearen alde lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeek, legeria nazionalen xedatutako baldintzak betetzen dituzten erakundeek, ere interesa dutela ulertuko da.

24) «erakunde ustiatzailea»: erauzketa-hondakinak kudeatzearen ardura duen pertsona fisiko edo juridikoa —bai eta erauzketa-hondakinak aldi baterako biltegitratzen dituena, bai instalazioa itxi ondoren ustiatu eta mantentzen dituena ere—, hondakinak kudeatzen dituen Estatu kidearen barne-zuzenbidearen arabera;

25) «hondakinak dituen»: erauzketa-hondakinaren ekoizlea edo hondakinak bere esku dituen pertsona fisiko edo juridikoa;

26) «pertsona eskuduna»: Zuzentarau honetatik sortutako eginkizunak betetzeko ezagutza teknikoak eta esperientzia dituen pertsona fisikoa, pertsona horrek lan egiten duen Estatu kideko barne-zuzenbideak definitzen duenaren arabera;

27) «agintari eskuduna»: Estatu kideek Zuzendaritza honetatik sortutako betebeharrak gauzatzeko arduradun izendatzen duten agintaria edo agintariak;

28) «kokalekua»: gune geografiko jakin batean, erakunde ustiatzaile baten kudeaketaren kontrolpean dagoen lur osoa;

29) «funtsezko aldaketa»: hondakin-instalazioaren egituraren edo funtzionamenduan egiten diren aldaketak, baldin eta agintari eskudunaren iritziz ondorio txar handiak izango baditu pertsonen osasunean edo ingurumenean.

4. artikulua

Baldintza orokorrak

1. Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte erauzketa-hondakinak ondo

kudeatzen direla bermatzeko; besteak beste, honako hauek bermatuko dituzte: arriskurik ez dutela pertsonen osasunerako, ingurumenari kalte egiteko moduko prozesu edo metodoak ez dituztela erabiltzen, eta, bereziki, urerako, ainerako, lurrerako, faunarentzako eta florarentzako arriskurik ez dutela sortuko, ez dutela arazorik sortuko zaratarekin edo usain txarrekin, eta ez diotela kalterik egingo paisaiari ez eta interes berezia duten tokiei ere. Horrez gain, Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte erauzketa-hondakinak kontrolik gabe ez uzteko, isurtzeko edo gordetzeko.

2. Estatu kideek bermatuko dute erakunde ustiatzaileak beharrezko neurri guztiak hartzen dituela erauzketa-hondakinaren kudeaketaren ondorioz ingurumenean eta pertsonen osasunean sor daitekeen edozein ondorio txar prebenitzeko edo ahalik eta gehien murrizteko. Neurri horien barruan egongo dira hondakin-instalazioan egin beharreko kudeaketak —instalazioa itxi ondoren egin beharreko kudeaketak barne—, bai eta instalazioan gerta daitezkeen istripu larrien prebentzioa eta istripu horiek ingurumenean eta gizakien osasunean izan ditzaketan ondorioak murriztea ere.

3. Dauden teknika onenetan oinarrituko dira, besteak beste, 2. atalean aipatzen diren neurriak, eta ez da teknika edo teknologia jakin bat erabiltzea aginduko, baina kontuan izango dira hondakin-instalazioaren ezaugarri teknikoak, bere kokapen geografikoa eta tokiko ingurumen-baldintzak.

5. artikulua

Hondakinak kudeatzeko plana

1. Estatu kideek bermatuko dute erakunde ustiatzaileek hondakinak kudeatzeko plan egokiak egingo dituztela, erauzketa-hondakinak gutxitzeko, tratatzeko, leheneratzeko eta ezabatzeko, garapen iraunkorraren printzipioa kontuan hartuta.

2. Hondakinak kudeatzeko planaren helburuak honako hauek izango dira:

a) hondakinaren ekoizpena eta kaltegarritasuna prebenitzea edo gutxitzea, honako elementu hauek kontuan hartuta, bereziki:

- i) hondakinaren kudeaketa proiektuaren fasean, eta mineralak erauzteko eta tratatzeko aukeratutako metodoa,
- ii) erauzketa-hondakinek izan

- ditzaketen aldaketak azalera handitzean eta aire zabalean jartzean,
- iii) minerala erauzi ondoren, hondeaketa-zuloa erauzketa-hondakinekin betetzea, praktikan egin badaiteke teknikoki eta ekonomikoki eta ingurumena errespetatzen badu; hau da, egokia bada ingurumen arloan Erkidegoak indarrean dituen arauen eta Zuzentarau honen baldintzen arabera,
 - iv) hondakin-instalazioa itxi ondoren, jatorrizko lur begetalarekin estaltzea, edo, praktikan hori egin ezin denean, lur begetala beste toki batean berriro erabiltzea,
 - v) baliabide mineralen tratamenduan ez horren gai arrisksuak erabiltzea;
- b) erauzketa-hondakinak lehenera daitezela sustatzea, birziklatuta, berriz erabilita edo berriz balioa emanda, baldin eta ingurumena errespetatzen badu; hau da, egokia bada ingurumen arloan Erkidegoak indarrean dituen arauen eta Zuzentarau honen baldintzen arabera;
- c) erauzketa-hondakinak epe motzean eta epe luzean seguru ezabatuko direla bermatzea. Horretarako, hondakin-instalazioa ustiatzen den bitartean eta itxi ondoren zer kudeaketa egingo den kontuan hartuko da proiektu-fasean, eta honako baldintza hauek beteko dituen diseinua hautatuko da:
- i) gutxi eskatuko duen diseinua, azken finean, hondakin-instalazioa ixtean jarraipenik, kontrolik eta kudeaketarik eskatuko ez duen diseinua,
 - ii) epe luzera ondorio txarrik izatea —esaterako, hondakin-instalaziotik gai-kutsatzaileak airez edo urez ateratzea— galaraziko duen, edo, gutxienez, ondorio txarrak murriztuko dituen diseinua,
 - iii) aurreko lurrazalaren gainean kokatutako presak edo hondakindegia epe luzera egonkortasun geoteknikoa izango duela bermatuko duen diseinua.
3. Hondakinak kudeatzeko planak honako elementu hauek izango ditu gutxienez:
- a) aplikatu daitezkeen kasuetan, hondakin-instalazioetarako proposatutako sailkapena, III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera:
 - A kategoriako hondakin-instalazio bat behar denean, istripu larrien prebentzio-politika aplikatuko dela frogatzen duen dokumentu bat, segurtasuna kudeatzeko sistema bat eta larrialdietarako barne-plana, 6. artikuluko 3. atalean xedatutakoaren arabera;
 - erakunde kudeatzailearen iritziz ez bada premiazkoa A kategoriako instalazioa izatea, hori justifikatzeko behar adina informazio, eta istripua izateko zer arrisku dagoen;
 - b) hondakinen ezaugarriak II. eranskinaren arabera, eta ustiapen-fasean guztira zenbat hondakin erauziko den aurreikuspena;
 - c) hondakin horiek sortzen dituen jardueraren deskribapena eta ondoren hondakin horiek jasotzen dituzten tratamenduak;
 - d) hondakin horiek gordeta ingurumenak eta gizakien osasunak izango dituzten ondorio txarren deskribapena, ustiatzeko garaian eta itxi ostean ingurumenean ahalik eta eragin txikiena egiteko hartu beharreko prebentzio-neurrien deskribapena, eta, horrez gain, 11. artikuluko 2. atalean, a), b), d) eta e) letratan aipatutako alderdiak;
 - e) aplikatu daitezkeenean, 10. artikuluan arabera proposatutako kontrol- eta jarraipen-prozedurak, eta 11. artikuluko 2. ataleko c) letraren arabera proposatutakoak;
 - f) ixteko prozedurarako proposatutako plana, bai eta itxi osteko leheneratzea eta mantentze-prozedura ere, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera;
 - g) uraren kalitatea ez dela okertuko prebentzeko neurriak, 2000/60/EE Zuzentarauaren arabera, eta airearen eta luraren kutsadura prebentzeko edo murrizteko neurriak, 13. artikuluan arabera;
 - h) hondakin-instalazioak kaltetuko duen luraren baldintzen azterketa.
- Hondakinak kudeatzeko planak behar beste informazio eman beharko du agintaritzaren eskudunak ebalua ahal izan dezan erakunde ustiatzaileak baduen gaitasunik hondakinak kudeatzeko planaren 2. atalean azaltzen diren helburuak eta Zuzentarau honen arabera dituen betebeharrak betetzeko. Plan horrek justifikatuko du, bereziki, 2. ataleko a) letrako i) puntuaren arabera hautatutako aukerak eta metodoak zer eratarik errespetatuko dituen hondakinak kudeatzeko planaren helburuak, 2. ataleko a) letran jasota dauden bezala.
4. Hondakinak kudeatzeko plana bost urtean behin berrikusi beharko da, eta, premia egonez

gero, aldatu egin beharko da, funtsezko aldaketak egon badira hondakin-instalazioaren ustiapenean edo gordetako hondakinetan. Agintaritza eskudunari jakinaraziko zaio aldaketarik egon den.

5. Beste arau nazional batzuk edo Erkidegoaren beste arau batzuk betez egindako planek 3. atalean zehaztutako informazioa badute, gauzatu ahal izango dira, era horretara erakunde ustiatzaileak informazio bera bitan jasotzea eta lana errepikatu behar izatea saihesten bada, baldin eta 1. ataletik 4.era arte aipatutako baldintza guztiak betetzen badira.

6. Agintaritza eskudunak hondakinak kudeatzeko plana onartuko du, Estatu kideek erabakitzen dituzten prozedurak oinarri hartuta, eta plana aplikatzen dela kontrolatuko du.

6. artikulua

Istripu larrien prebentzioa eta informazioa

1. A kategoriako hondakin-instalazioen kasuan ezarriko da artikulua hau, 96/82/EE Zuzentarauaren aplikazio-eremuan sartzen diren hondakin-instalazioen kasuan izan ezik.

2. Estatu kideek ziurtatuko dute istripu larriak egoteko arriskuak zehaztuko direla eta beharrezko alderdiak sartuko direla hondakin-instalazioen diseinuan, eraikuntzan, ustiapenean, mantentze-lanetan, itxieran eta itxi osteko garaian, istripu larriak prebenitzeko eta istripu horiek gizakien osasunean edo ingurumenean izan ditzaketan ondorio txarrak mugatzeko —istripu horiek mugaz haraindi izan ditzaketan eraginak barne—. Nolanahi ere, kontuan hartuko dira indarrean dauden Erkidegoaren beste araudi batzuk —bereziki, 92/91/EEE eta 92/104/EEE Zuzentarauak—.

3. Jardueran hasi aurretik, erakunde ustiatzaile bakoitzak istripu larriak prebenitzeko politika bat egingo du, eta politika hori aplikatuko du erauzketa-hondakin kudeaketan, 2. ataleko baldintzak betez. Horretarako, segurtasuna kudeatzeko sistema bat ezarriko du, I. eranskineko 1. atalean ezarritako elementuen arabera, eta, horrez gain, larrialdietarako barne-plan bat jarriko du abian, istripua egonez gero tokian bertan zer neurri hartu behar diren zehazteko.

Politika horren barruan, erakunde ustiatzaileak segurtasun-kudeatzaile bat izendatuko du. Kudeatzaile horrek aplikatuko du istripu larrien prebentzio-politika eta aldian behin ikuskatuko du.

Agintaritza eskudunak larrialdietarako kanpo-plan bat egingo du, eta, bertan, istripua egoten denean tokitik kanpora zer neurri hartu behar diren zehaztuko du. Baimen-eskaeraren zati gisa, erakunde ustiatzaileak beharrezko informazioa emango dio agintaritza eskudunari plan hori egin ahal izateko.

4. Honako helburu hauek izango dituzte 3. atalean aipatzen diren larrialdi-planek:

a) istripu larriak eta beste hainbat gertakari geldiaraztea eta kontrolatzea, ahalik eta ondorio txikienak izateko, eta, bereziki, horiek pertsonen osasunean eta ingurumenean egiten dituzten kalteak mugatzeko;

b) beharrezko neurriak ezartzea pertsonen eta ingurumenaren osasuna babesteko, istripu larriek eta beste gertakari batzuek egin dakiekeen kaltearen aurrean;

c) herritarrei eta ingurunekeo zerbitzu edo agintariei beharrezko informazioa jakinaraztea;

d) neurriak hartzea istripu larri bat egon ostean ingurumena leheneratu eta garbitzeko.

Estatu kideek bermatuko dute istripu larri bat egotean erakunde ustiatzaileek berehala emango dietela beharrezko informazio guztia agintari eskudunei istripuak pertsonen osasunean izan dezakeen eragina ahalik eta gehien murrizten laguntzeko eta ingurumenari kalte egiteko arriskua ebaluatzeko eta ahalik eta txikiena izateko.

5. Estatu kideek bermatuko dute interesa duten herritarrek aukera erreala izango dutela 3. atalaren arabera egin behar den larrialdietarako kanpo-plana prestatzeko edo aztertzeko, lehenengo faseetako batean. Horretarako, interesa duten herritarrei jakinaraziko zaie zer proposamen dauden gai horri lotuta, eta, horrez gain, informazioa emango zaie —besteak beste, erabakitzeko prozesuan parte hartzeko eskubideari buruzko informazioa eta oharrak eta galderak zer agintari eskuduni bidali jakiteko informazioa—.

Estatu kideek bermatuko dute interesa duten herritarrek oharrak egiteko eskubidea izango dutela arrazoizko epeen barruan, eta larrialdietarako kanpo-planari buruzko erabakian kontuan izango dituztela ohar horiek.

6. Estatu kideek bermatuko dute doan eta ofizioz emango zaiela interesa duten herritarrei segurtasun-neurriei eta istripua egonez gero egin beharreko esku-hartzeari buruzko informazioa. Informazio horrek I. eranskinen 2. atalean aipatutako elementuak izan beharko ditu gutxienez.

Informazio hori hiru urtean behin berrikusiko da, eta, beharrezkoa denean, eguneratu egingo da.

7. artikulua

Eskaera eta baimena

1. Agintaritza eskudunaren baimena jaso ez duen hondakin-instalazioari ez zaio utziko jarduera egiten. Baimenak artikulua honetan, 2. atalean zehaztutako elementuak izango ditu, eta argi adieraziko du hondakin-instalazioaren kategoria, 9. artikuluan aipatutako irizpideen arabera.

Artikulu horretako baldintza guztiak errespetatzen badira, beste arau nazional bat edo Erkidegoaren beste arau bat betez lortutako beste edozein baimen konbinatu ahal izango da baimen bakarra osatzeko, era horretara erakunde ustiatzaileak edo agintaritza eskudunak informazio bera bitan jasotzea eta lana errepikatu behar izatea saihesten bada. 2. atalean zehaztutako informazioa baimen bakarrean edo hainbat baimenetan sartu ahal izango da, baldin eta artikulu honetan xedatutako baldintza guztiak betetzen badira.

2. Baimen-eskaerak honako informazio hau izango du gutxienez:

- a) erakunde ustiatzailearen nortasuna;
- b) hondakin-instalazioarentzako proposatutako kokalekua, bai eta ordezkoko beste kokalekuak ere;
- c) hondakinak kudeatzeko plana, 5. artikulua arabera;
- d) finantza-bermea edo baliokidea, 14. artikuluan xedatutakoaren arabera;
- e) erakunde ustiatzaileak emandako informazioa, 85/337/EEE Zuzentarauko 5. artikulua arabera¹, baldin eta Zuzentarau hori

¹ Kontseiluaren 85/337/EEE Zuzentzaraua, 1985eko ekainaren 27koa, proiektu publiko eta pribatu jakin batzuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzkoa (EO L 175 1985.7.5ekoa, 40. or.). Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren

betez, ingurumenean egingo den eraginaren ebaluazioa eskatzen bada.

3. Agintaritza eskudunak honako kasu hauetan bakarrik emango du baimena:

- a) erakunde ustiatzaileak Zuzentarau honetan azaltzen diren baldintza guztiak betetzen baditu;
- b) hondakinen kudeaketa ez badoa zuzenean 75/442/EEE Zuzentzarauko 7. artikulua aipatzen duen hondakin-kudeaketako planaren edo planen aplikazioaren kontra eta ez badu beste edozein eratarara oztokatzen planaren aplikazioa.

4. Estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte kasu hauetan agintari eskudunak baimenaren baldintzak aldi behin aztertzen dituztela, eta, beharrezkoa denean, eguneratu egingo dituztela bermatzeko:

- instalazioaren ustiapenean edo gordetako hondakinetan funtsezko aldaketak daudenean;
- erakunde ustiatzaileak emandako kontrol-emaitzak oinarri hartuta, 11. artikuluko 3. atalaren arabera, edo 17. artikulua arabera egindako ikuskapenak oinarri hartuta;
- dauden teknika onenetan funtsezko aldaketak egon direla jakinarazteko informazioa trukatzeko, 21. artikuluko 3. atalaren arabera.

5. Artikulu honen arabera baimenean azaltzen den informazioa estatistikak egiteko informazio hori eskatzen duten estatistika-agintaritza nazional eskudunei eta Erkidegoaren estatistika-agintaritzari emango zaie. Merkataritza-izaera bakarrik duen informazioa —besteak beste, enpresen arteko harremani buruzkoa, kostuen elementuei buruzkoa eta garrantzi ekonomikoa duten mineral-erreserben bolumenari buruzkoa— ez dira ezagutaraziko.

8. artikulua

Herritarren partaidetza

1. Ohar publikoen bidez edo beste bitarteko egoki batzuekin —besteak beste, elektronikoekin baldin eta erabil badaitezke—, ezagutaraziko zaizkie herritarrei honako gai hauek, baimena emateko prozeduraren lehenengo faseetako batean, edo, beranduenera ere, informazioa emateko aukera dagoen bezain pronto:

2003/35/EE Zuzentzarauak (EO L 156 2003.6.25ekoa, 17. or.) aldatu zuen Zuzentzaraua.

a) baimen-eskaera;

b) baimen-eskaera bati buruz erabakia hartzeko Estatu kideei egin beharreko kontsulta, 16. artikulua araberaz;

c) erabakia hartzeko ardura duten agintari eskudunen helbidea, informazio egokia eman dezakeen jendearen helbidea, oharrak edo galderak egin dakizkiokeen jendearen helbidea eta oharrak aurkezteko edo galderak egiteko egutegia;

d) erabakien izaera;

e) bidezkoa bada, baimen bat eguneratzeko proposamenaren edo proposamen horren baldintzen xehetasunak;

f) informazioa banatuko den data eta tokia edo informazioa zabalduko duten bitartekoak;

g) herritarrek parte hartzeko prozedurak, 7. atalaren arabera definituta.

2. Estatu kideek hartuko dute ardura honako elementu hauek interesa duten herritarren eskura jartzeko epe egokietan:

a) legeria nazionalaren arabera, herritarrei informazioa eman zitzaizen garaian agintaritzaren eskudunari zuzendu zitzaizkion txosten eta irizpen nagusiak, 1. atalean xedatutakoaren arabera;

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urtarrilaren 28ko 2003/4/EE Zuzentarauko, ingurumenaren arloko informazioa jendeak eskuratzeari buruzko Zuzentarauko¹, xedapenen arabera, 1. atalean aipatutako informazioaren osagarria, erabakia hartzeko informazio egokia Zuzentarau honetako 7. artikulua araberaz. Aurreko 1. atalaren arabera herritarrek informazioa jaso ostean soilik eskuratu ahal izango da informazio hori.

3. Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte herritarrek informazioa jasoko dutela bermatzeko —artikulu honetako 1. atalaren arabera—, baimenaren baldintzak eguneratzen direnean —7. artikuluko 4. atalaren arabera—.

4. Interesa duten herritarrek agintaritzaren eskudunari oharrak egiteko eta iritzia emateko eskubidea izango dute erabakia hartu aurretik.

5. Artikulu honen arabera egiten diren kontsulten emaitzak kontuan hartuko dira erabakia hartu aurretik.

6. Erabaki bat hartutakoan, agintaritzaren eskudunak informazioa helaraziko die interesa duten herritarrei, prozedura egokiak erabilita. Honako informazio hau emango die:

a) erabakiaren edukia eta baimenaren kopia bat;

b) erabakia zer arrazoi eta iritzitan oinarritu den.

7. Estatu kideek erabakiko dute herritarrek parte hartzeko zer prozedura erabiliko dituzten, artikulu honen arabera. Era horretara, interesa duten herritarrek prestatu eta modu eraginkorrean parte hartu ahal izango dute.

9. artikulua

Hondakin-instalazioak sailkatzeko sistema

Zuzentarau honi jarraiki, agintari eskudunek hondakin-instalazioak A kategorian sailkatuko dituzte, III. eranskinean ezartzen diren irizpideen arabera.

10. artikulua

Hondeaketa-zuloak

1. Erakunde ustiatzaile batek hondakinak leheneratzeko eta eraikuntzarako lurrazaleko edo lurpeko erauzketaren bitartez sortu dituen hondeaketa-zuloak erauzketa-hondakinekin betetzen dituztenean, Estatu kideek bermatuko dute erakunde ustiatzaileak neurri egokiak hartuko dituela honako hauek egiteko:

1) erauzketa-hondakinaren egonkortasuna ziurtatzeko, 11. artikuluko 2. atalaren arabera, *mutatis mutandis*;

2) luraren eta lurrazaleko edo lurpeko uren kutsadura prebenitzeko, 13. artikuluko 1., 3. eta 5. atalaren arabera, *mutatis mutandis*;

3) erauzketa-hondakinaren eta hondeaketa-zuloaren jarraipena bermatzeko, 12. artikuluko 4. eta 5. atalaren arabera, *mutatis mutandis*;

2. 1999/31/EE Zuzentaraua aplikatuko zaie erauzketakoak ez diren hondakinei, baldin eta hondeaketa-zuloak betetzeko erabiltzen badira.

11. artikulua

Hondakin-instalazioen eraikuntza eta kudeaketa

¹ EO L 41 2003.2.14koa, 26. or.

1. Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte hondakin-instalazioen kudeaketa pertsona prestatuen esku egoteko, eta langileek garapen teknikoko ikastaroak eta prestakuntza jasotzeko.

2. Agintaritzea eskudunak ziurtatu beharko du hondakin-instalazio berri bat eraikitzean edo jada badagoen instalazio bat aldatzean erakunde ustiatzaileak honako hauek bermatzen dituela:

a) hondakin-instalazioa behar bezala kokatuta dagoela, bereziki, kontuan hartuta eremu babestuetarako eta alderdi geologiko, hidrologiko, hidrojeologiko, sismiko eta geoteknikoetarako Erkidegoaren betebeharrak edo betebeharrak nazionalak. Horrez gain, aintzat hartuko da lurrazaleko uren kutsadura epe laburrean eta epe luzean prebenitzeko bete behar dituen baldintzak betetzeko moduan diseinatuta dagoela, 76/464/EEE¹, 80/68/EEE² eta 2000/60/EE Zuzentarauak bereziki kontuan hartuta, eta, baimenean xedatutakoaren arabera, kutsatutako ura eta lixibiatuak behar bezala gordeko dituela ziurtatzeko moduan eta urak eragindako higadura eta haizeak sortutako urradura murrizteko moduan dagoela, teknikoki hori egin badaiteke eta ekonomikoki bideragarria bada;

b) hondakin-instalazioa behar bezala eraiki, kudeatu eta mantenduta dagoela. Horrez gain, egonkortasun fisikoa ziurtatzeko eta lurrazaleko, airearen eta lurrazaleko edo lurpeko uren kutsadura epe laburrean eta luzean prebenitzeko eta ahal den neurrian paisaia egiten duen kaltea minimizatzeke moduan dagoela;

c) prestatutako pertsonak aldi berean behin hondakin-instalazioaren jarraipena eta ikuskaritza egiteko plan eta neurri egokiak daudela, bai eta ezegonkortasun-zantzuak edo ura edo lurra kutsatzeko zantzuak hautematen badira esku hartzeko plan eta neurri egokiak ere;

d) lurra leheneratzeko eta hondakin-instalazioa ixteko neurri egokiak hartzen direla;

¹ Kontseiluaren 76/464/EEE Zuzentaruak, 1976ko maiatzaren 4koa, Erkidegoko uretara isuritako gai arriskutsu jakin batzuek eragindako kutsadurari buruzkoa (EO L 129 1976.5.18koa, 23. or.). Azken buruan 2000/60/EE Zuzentarauak aldatu zuen Zuzentaruak.

² Kontseiluaren 80/68/EEE Zuzentaruak, 1979ko abenduaren 17koa, gai arriskutsu jakin batzuek eragindako kutsaduraren kontra lurpeko urak babesteari buruzkoa (EO L 20 1980.1.26koa, 43. or.). 91/692/EEE Zuzentarauak (EO L 377 1991.12.31koa, 48. or.) aldatu zuen Zuzentaruak.

e) neurri egokiak hartzen direla hondakin-instalazioa itxi ondorengo faserako.

c) puntuan aipatutako jarraipena eta ikuskaritza kontrolatzeko erregistro bat egingo da, bai eta baimenari dagozkion dokumentuen erregistroa ere, informazio-transmisio egokia egon dadila bermatzeko, batez ere erakunde ustiatzailea aldatzen bada.

3. Bidegabeko atzerapenik gabe, eta, nolahi ere, hurrengo 48 orduak pasa aurretik, erakunde ustiatzaileak agintaritzea eskudunari jakinaraziko dio hondakin-instalazioaren egonkortasunean eragina izan dezakeen gertakariren bat jazo bada eta hondakin-instalazioaren kontrol- eta jarraipen-prozeduretan ingurumenerako ondorio kaltegarri handirik hauteman bada. Beharrezkoa denean, erakunde ustiatzaileak larrialdietarako barne-plana aplikatuko du, eta agintaritzea eskudunaren argibide guztiak jarraituko ditu, zer neurri zuzentzaile hartu behar diren jakiteko.

Erakunde ustiatzaileak ordainduko ditu hartu beharreko neurrien kostuak.

Datu orokorretan oinarrituta, erakunde ustiatzaileak jarraipenaren emaitza guztien berri emango dio agintaritzea eskudunari, agintaritzea eskudunak erabakitako maiztasunarekin, eta, nolahi ere, gutxienez urtean behin, baimeneko baldintzak betetzen dituela frogatzeko eta hondakinen eta hondakin-instalazioaren jarrera hobeto ezagutzeko. Txosten hau oinarri hartuta, agintaritzea eskudunak erabaki ahal izango du aditu independente batek frogatzea beharrezkoa den.

12. artikulua

Hondakin-instalazioak ixteko eta ondoren mantentzeko prozedurak

1. Estatu kideek neurriak hartuko dituzte 2. ataletik 5.era arte xedatutakoa betetzen dela ziurtatzeko.

2. Honako baldintza hauetako bat betetzen badute bakarrik jarriko dute abian hondakin-instalazioek ixteko prozedura:

a) baimenean adierazitako baldintzak betetzen badira;

b) agintaritzea eskudunak dagokion baimena ematen badu, erakunde ustiatzaileak hala eskatuta;

c) agintaritza eskudunak hori erabakitzen badu.

3. Hondakin-instalazio bat honako kasu hauetan bakarrik hartuko da behin betiko itxiztat: agintaritza eskudunak amaierako ikuskapen bat egitean *in situ* bidegabeko atzerapenik gabe, erakunde ustiatzaileak aurkeztutako txosten guztiak ebaluatzean, hondakin-instalazioak kaltetutako lurra leheneratuta dagoela ziurtatzean eta erakunde ustiatzaileari instalazioa ixtea onartu duela jakinaraztean.

Onarpen horrek ez ditu murriztuko inondik inora erakunde ustiatzaileak baimenaren baldintzen edo legezko beste betebeharrak batzuen arabera dituen erantzukizunak.

4. Erakunde ustiatzaileak izango du instalazioa itxi osteko faseko mantentzearen, jarraipenaren, kontrolaren eta neurri zuzentzaileen ardura, agintaritza eskudunak eskatzen duen denborartean guztian, arriskuaren izaera eta iraupena kontuan hartuta, erakunde ustiatzailearen ordean agintaritza eskudunak lan horiek bere gain hartzea erabakitzen duenean izan ezik, hondakin-instalazioa behin betiko itxita dagoenean. Nolanahi ere, kontuan hartu behar dira hondakinak dituenaren erantzukizun zibilari dagokionez Erkidegoak duen legeria edo legeria nazionala.

5. Erkidegoaren legeriak ezarritako baldintzak —bereziki, 76/464/EEE, 80/68/EEE eta 2000/60/EE Zuzentarauetako baldintzak— betetzeko, agintaritza eskudunari beharrezkoa iruditzen bazaio, erakunde ustiatzaileak honako eginkizun hauek bete behar ditu, besteak beste, hondakin-instalazioa itxi ostean: instalazioaren egonkortasun fisiko eta kimikoa kontrolatu eta ingurumenaren ingurumenaren ondorio kaltegarri guztiak —bereziki, lurrazaleko eta lurpeko uretan izan ditzakeenak— ahalik eta gehien murriztu. Horrez gain, honako hauek bermatu behar ditu:

a) instalazioaren egitura guztiak zainduta eta kontserbatuta daudela, eta kontrol- eta neurketa-aparatu guztiak beti prest egongo direla edozein garaitan erabiltzeko;

b) beharrezkoa denean, gainezkabideak eta hustubideak beti garbi daudela eta ez dutela trabarik.

6. Hondakin-instalazio bat itxi ostean, hondakin-instalazioaren egonkortasunari eragin diezaiokeen edozein gertakari edo egoeraren berri emango dio, batere atzerapenik gabe,

erakunde ustiatzaileak agintaritza eskudunari. Gauza bera egingo du hondakin-instalazioko kontrol- eta jarraipen-prozeduretan ingurumeneko ondorio kaltegarri handirik hauteman bada ere. Beharrezkoa denean, erakunde ustiatzaileak larrialdietarako barne-plana aplikatuko du, eta agintaritza eskudunaren argibide guztiak jarraituko ditu, zer neurri zuzentzaile hartu behar diren jakiteko.

Erakunde ustiatzaileak ordainduko ditu hartu beharreko neurrien kostuak.

Datu orokorrak kontuan hartuta, erakunde ustiatzaileak jarraipenaren emaitza guztien berri emango dio agintaritza eskudunari, agintaritza eskudunak erabakitako kasuetan eta hark erabakitako maiztasunarekin, baimeneko baldintzak betetzen dituela frogatzeko eta hondakinen eta hondakin-instalazioaren jarrera hobeto ezagutzeko.

13. artikulua

Uraren egoera ez okertzeko eta airea eta lurra ez kutsatzeko prebentzioa

1. Agintaritza eskudunak ziurtatuko du erakunde ustiatzaileak beharrezko neurriak hartu dituela ingurumen arloan Erkidegoak dituen arauak errespetatzeko, eta, era horretara, 2000/60/EE Zuzentarauaren arabera bereziki, uren gaur egungo egoera ez okertzeko, besteak beste, honako jarduerak hauek eginda:

a) lixibiatuak sortzeko gaitasuna ebaluatuta —lixibiatuen kutsatzaileen edukia barne— ustiapen-fasean eta hondakin-instalazioa itxi ostean gordetako hondakinak ebaluatuta eta hondakin-instalazioaren ur-balantzea zehaztuta;

b) lixibiatuak sortzea eta hondakinek lurrazaleko edo lurpeko urak eta lurra kutsatzea prebenituta edo horiek murriztuta;

c) hondakin-instalazioko ur kutsatuak eta lixibiatuak jasota eta tratatuta, horiek isurtzeko araudi egokia bete dezaten.

2. Agintaritza eskudunak zainduko du erakunde ustiatzaileak aplikatu dituela beharrezko neurriak hautsa eta gas-emisioak bukatzeko edo murrizteko.

3. 76/464/EEE, 80/68/EEE edo 2000/60/EE Zuzentarauak kontuan hartuta ingurumeneko arriskuaren ebaluazioa egiten bada, eta ebaluazio hori oinarri hartuta agintaritza eskudunak erabakitzen badu lixibiatuak jasotzea eta tratatzea ez dela beharrezkoa edo hondakin-

instalazioak ez duela lurrerako eta lurrazaleko eta lurpeko uretarako arriskurik sortzen, 1. ataleko b) eta c) puntuetan ezarritako baldintzak murriztu ahal izango dira edo ez da beharrezkoa izango horiek eskatzea.

4. Erauzketa-hondakinak ezabatzeko —bai solido, lokatz edo likido moduan, erauzketa-hondakinak ezabatzeko osatutako ur-masa ez den edozein ur-masatan— baldintza gisa, 76/464/EEE, 80/68/EEE eta 2000/60/EE Zuzentarauetako baldintzak betetzeko eskatuko diete Estatu kideek erakunde ustiatzaileei.

5. Erakunde ustiatzaileak erauzketa-hondakinekin betetzen dituen lurrazaleko edo lurpeko erauzketa bidez sortutako hondeaketa-zuloak —itxi ostean urak hartzen utziko dira bigarren motako zulo hauek—, beharrezko neurriak hartuko ditu uren egoera ez okertzeko edo ahalik eta gutxien okertzeko eta lurra ez kutsatzeko edo ahalik eta gutxien kutsatzeko, 1. eta 3. atalen arabera, *mutatis mutandis*. Erakunde ustiatzaileak beharrezko informazioa emango dio agintaritzaren eskudunari, Erkidegoaren betebeharrak betetzen dituela bermatzeko, bereziki, 2000/60/EE Zuzentaria betetzen duela bermatzeko.

6. Zianuroa duten baltsen kasuan, erakunde ustiatzaileak bermatuko du azido ahulean disozia daitekeen zianuroaren kontzentrazioa ahalik eta maila baxuenera murriztuko dela, dauden teknika onenak erabilita. Nolanahi ere, 2008ko maiatzaren 1aren aurretik baimena lortu duten instalazioek edo data horretarako abian zeudenek bermatuko dute baltsako tratamendu-instalazioaren erauzketa- eta tratamendu-hondakinen isuri-puntuaz azido ahulean disozia daitekeen zianuroaren kontzentrazioa ez dela 50 ppm baino handiagoa 2008ko maiatzaren 1etik aurrera, 25 ppm baino handiagoa 2013ko maiatzaren 1etik aurrera, 10 ppm baino handiagoa 2018ko maiatzaren 1etik aurrera eta 10 ppm baino handiagoa 2008ko maiatzaren 1a baino geroago baimena lortzen duten instalazioen kasuan.

Agintaritzaren eskudunak hala eskatuta, kokalekuaren berariazko baldintzak kontuan hartuko dituen arriskuaren ebaluazio batekin, erakunde ustiatzaileak frogatuko du kontzentrazio-muga horiek ez dutela zertan gehiago murriztu.

14. artikulua

Finantza-bermea

1. Hondakin-instalazio batean hondakinak metatzeko edo gordetzeko jardura bat abian jarri aurretik, agintaritzaren eskudunak finantza-berme bat edo baliokidea jartzeko eskatuko du (esaterako, finantza-gordailu moduan, industriak babestutako elkarrenganako berme-funtsak barne), Estatu kideek erabakitzen dituzten prozeduren arabera. Era horretara:

a) Zuzentaria honen arabera baimenak ezartzen dituen betebeharrak guztiak beteko dira, itxi osteko faseari buruzko xedapenak barne;

b) hondakin-instalazioak kaltetutako lurra leheneratzeko, edozein garaitan erabiltzeko moduko funtsak egongo dira, 5. artikulua arabera egindako hondakinak kudeatzeko planean deskribatzen den bezala, eta 7. artikuluan xedatutako baimenak hala eskatuta.

2. Honako alderdi hauek kontuan hartuta egingo da 1. atalean aipatzen den bermearen kalkulua:

a) hondakin-instalazioak ingurumenean izan dezakeen eragina, hondakin-instalazioaren kategoria, hondakinaren ezaugarriak eta leheneratutako lurrek etorkizunean izango duten erabilera bereziki kontuan hartuta;

b) hirugarren independenteek, behar bezala prestatutako hirugarrenek, egingo dituzte beharrezko leheneratze-lanak eta horiek ebaluatuko dituzte.

3. Bermearen zenbatekoa aldi-aldi egokituko da, hondakin-instalazioak kaltetutako lurretan egin beharreko leheneratze-lanen arabera, 5. artikulua arabera egindako hondakinak kudeatzeko planean deskribatzen den bezala, eta 7. artikuluan xedatutako baimenak hala eskatuta.

4. Agintaritzaren eskudunak instalazioa ixtea onartzen duenean 12. artikuluko 3. atalaren arabera, aitortzen idatzi bat emango dio erakunde ustiatzaileari, eta barkatu egingo dio artikuluko honetako 1. atalean azaltzen den bermea jartzeko betebeharra, baina ez dizkio barkatuko 12. artikuluko 4. atalean itxi osteko fasearako azaltzen diren betebeharrak.

15. artikulua

Ingurumen-erantzukizuna

2004/35/EE Zuzentariaren III. eranskinari honako puntu hau erantsiko diogu:

«13. Erauzketa-hondakinen kudeaketa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko martxoaren

15eko 2006/21/EE Zuzentarauaren, erauzketa-industrietako hondakinen kudeaketari buruzko Zuzentarauaren^(*), arabera.

16. artikulua

Mugaz haraindiko ondorioak

1. Estatu kide batean hondakin-instalazio bat kokatuta badago, eta herrialde horrek ikusten badu A kategoriako hondakin-instalazioaren ustiapenak ondorio kaltegarri handiak izan ditzakeela ingurumenean, eta, horren ondorioz, arriskua sor diezaiokeela beste Estatu kide bateko gizakien osasunari, edo, bestela, Estatu kide batek kalte handiak izan ditzakeela-eta hala eskatzen badu, 7. artikuluan azaltzen den baimena eskatu zen Estatu kideak beste Estatu kideari jakinaraziko dizkio artikuluko horren arabera aurkeztutako datuak, bere herrialdeko herritarren eskura jartzen dituen une berean.

Datu horiek oinarri gisa balioko dute elkarrekikotasuna eta tratu berdina oinarri hartuta bi Estatu kideen artean egongo den alde biko harremanen esparruan.

2. Alde biko harremanen esparruan, 1. atalean aipatutako kasuetan, Estatu kideek ardura hartuko dute kalteak izan ditzakeen Estatu kidean interesa duten herritarrek eskaerak beraien esku izan ditzaten denbora-tarte egoki batean, herritar horiek ere jarrera bat hartu ahal izan dezaten gai horri buruz, agintaritzak eskudunak ebazpena eman aurretik.

3. Hondakin-instalazio batean artikuluko honetako 1. atalean deskribatzen den istripuaren antzekoa gertatzean, Estatu kideek bermatuko dute 6. artikuluko 4. atalaren arabera erakunde ustiatzaileak agintaritzak eskudunari helarazitako informazioa berehala bidaliko zaiola beste Estatu kideari, istripuak pertsonen osasunean izan ditzakeen ondorioak ahalik eta txikienak izan daitezten eta ingurumenean egindako kaltea edo egin daitezkeen kaltea ahalik eta txikiena izan dadin.

17. artikulua

Agintaritzak eskudunaren ikuskapenak

1. Isuri-jarduerak hasi aurretik, eta, une horretatik aurrera —itxi osteko fasea barne—, agintaritzak eskudunak 7. artikuluan jasotako

^(*) EO L 102 2006.4.11koa, 15. or.».

hondakin-instalazio guztiak ikuskatuko ditu, baimenean azaltzen diren baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko. Ikuskapenak aldiro-aldiro egingo dira, Estatu kide interesdunak erabakitako maiztasunarekin. Emaidza ona bada ere, erakunde ustiatzaileak ez du erantzukizun gutxiago izango baimeneko baldintzei dagokienez.

2. Estatu kideek hondakinak kudeatzeko jarduera guztien erregistro eguneratua eskatuko diote erakunde ustiatzaileari, eta erregistro hori agintaritzak eskudunaren esku jar dezala hark ikuska dezan. Gainera, erakunde ustiatzailea aldatzen bada hondakin-instalazioa kudeatzeko garaian, informazio eguneratua eta instalazioaren erregistroa behar bezala eskualdatuko direla bermatuko da.

18. artikulua

Informazioa emateko betebeharrak

1. Hiru urtean behin, Estatu kideek txosten bat bidaliko diote Batzordeari Zuzentaru honen aplikazioari buruz. Txosten hori egiteko, Batzordeak galdera-sorta edo eskema bat hartu beharko du oinarri gisa, 23. artikuluko 2. atalean ezarritako prozeduraren arabera. Txosten hori Batzordeari bidaliko zaio hiru urteko epea amaitu eta hurrengo bederatzi hilabeteen barruan.

Batzordeak txosten bat argitaratuko du Zuzentaru honen aplikazioari buruz, Estatu kideen txostenak jasotzen dituenetik bederatzi hilabete epean.

2. Erakunde ustiatzaileek jakinarazitako gertaerei buruzko informazioa bidaliko diote urtero Estatu kideek Batzordeari, 11. artikuluko 3. atalean eta 12. artikuluko 6. atalean xedatutakoaren arabera. Informazio hori eskatzen duten Estatu kideen esku jarriko du Batzordeak informazio hori. Era berean, Estatu kideek informazio hori eskatzen duten herritar interesdunen esku jarriko dute informazioa. Nolanahi ere, kontuan hartuko da ingurumen arloko informazioa herritarrek jasotzeko buruz Erkidegoak duen legeria.

19. artikulua

Zigorrak

Estatu kideek erabakiko dute Zuzentaru honen arabera hartutako barne-zuzenbideko xedapenak haustean zer zigor-erregimen ezarri ahal izango den, eta beharrezko neurri guztiak hartuko

dituzte erregimena ezarriko dela bermatzeko. Zigor horiek eraginkorrak, tamainakoak eta disuasiokoak izan beharko dute.

20. artikulua

Hondakin-instalazio itxien inbentarioa

Estatu kideek bermatuko dute ingurumenean eragin larria duten edo epe ertain edo laburrean pertsonen osasunerako edo ingurumenerako mehatxu larria izan daitezkeen beraien lurraldeetako hondakin-instalazio itxien —abandonatutako hondakin-instalazioak barne— inbentario bat egin eta eguneratuko dela aldiari-aldiari. Inbentario hori publiko egingo da, eta beranduenera ere 2012ko maiatzaren lehen egunetik aurrera, 21. artikuluan aipatzen diren metodologiak kontuan hartuta, baldin eta metodologia horiek esku artean izanez gero.

21. artikulua

Informazio-trukea

1. Estatu kideen artean informazio tekniko eta zientifikoa behar bezala trukatzeko delako bermatuko du Batzordeak, 23. artikuluan aipatutako Komiteak lagunduta, helburu hauek lortzeko bide emango duten metodologiak garatzeko:

a) 20. artikulua aplikatzea;

b) 20. artikuluen arabera zehaztutako hondakin-instalazio itxiak leheneratzea, 4. artikuluko baldintzak betetzeko. Metodologia horien bitartez, arriskuak ebaluatzeko prozedura eta neurri zuzentzaile egokiak ezarri ahal izango dira, Europan dauden ezaugarri geologiko, hidrogeologiko eta klimatologiko ugariak kontuan hartuta.

2. Estatu kideek bermatuko dute agintaritzaren eskudunak dauden teknika onenen bilakaeraren jarraipena egingo duela edo bilakaera horren informazioa jasoko duela.

3. Estatu kideen eta interesa duten erakundeen artean informazio-trukea antolatuko du Batzordeak, dauden teknika onenei buruz, eta horien jarraipen eta bilakaeraren gainean. Batzordeak argitaratu egingo ditu informazio-trukearen emaitzak.

22. artikulua

Aplikazio- eta aldaketa-neurriak

1. 2008ko maiatzaren lehen aurretik, Batzordeak beharrezko xedapenak hartuko ditu, 23. artikuluko 2. atalak aipatzen duen prozedura betetzeko, honako hauek lortzeko —lehentasuna emango zaie e), f) eta g) letrei—:

a) 7. artikuluko 5. atalean eta 12. artikuluko 6. atalean aipatutako informazioa aldiari-aldiari bateratu eta jakinarazteko;

b) 13. artikuluko 6. atala aplikatzeko —azido ahulean disozia daitezkeen zianuroa definitzeari buruzko baldintza teknikoak eta neurketa-metodoa barne—;

c) finantza-bermea jartzeko arau teknikoak, 14. artikuluko 2. ataleko baldintzen arabera;

d) ikuskapenentarako arau teknikoak, 17. artikuluen arabera;

e) II. eranskinean azaltzen diren hondakinak bereizteko baldintza teknikoak osatzeko;

f) 3. artikuluko 3. puntuan azaltzen den definizioa interpretatzeko;

g) III. eranskinaren arabera, hondakin-instalazioen sailkapen-irizpideak definitzeko;

h) Zuzentarau honen aplikazio teknikorako egin behar diren laginketa- eta azterketa-metodoentarako arau bateratuak zehazteko.

2. Eranskinak aurrerapen zientifiko eta teknikora egokitzeko gerora egin behar diren aldaketa guztiak Batzordeak egingo ditu, 23. artikuluko 2. atalak aipatzen duen prozeduraren arabera.

Ingurumenaren babes-maila handia lortzeko egingo dira aldaketa horiek.

23. artikulua

Komitea

1. Batzordeak Komitearen laguntza izango du, eta Komite hori 75/442/EEE Zuzentarauko 18. artikuluen arabera eratuta egongo da. Aurrerantzean, «Komitea» esango diogu.

2. Artikulu hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikuluen aplikatutako dira, Erabaki horren 8. artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuta.

1999/468/EE Erabakiko 5. artikuluko 6. atalean azaltzen den epea hiru hilabetekoa da.

3. Komiteak onartuko du bere barne-araudia.

24. artikulua

Xedapen iragankorra

1. Estatu kideek bermatuko dute baimena eman zaien hondakin-instalazioek eta 2008ko maiatzaren 1aren aurretik lanean direnek Zuzentarau honen xedapenak beteko dituztela 2012ko maiatzaren 1aren aurretik, 14. artikuluko 1. atalean eta 13. artikuluko 6. atalean aipatutakoek izan ezik. 14. artikuluko kasuan, 2014ko maiatzaren 1a izango da epea, eta, bigarrenengo kasuan, xedapen honetan finkatutako egutegiaren arabera bermatu beharko da xedapenak betetzeko epea.

2. 2008ko maiatzaren 1ean itxita dauden hondakin-instalazioei ez zaie aplikatuko 1. atala.

3. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte honako hau bermatzeko: 2006ko maiatzaren 1etik aurrera —nahiz eta data horren ondoren hondakin-instalazio horietako bat itxi— eta 2008ko maiatzaren 1a baino lehenago, Zuzentarau honetako 4. artikuluko 1. atalean xedatutakoa eta Erkidegoaren legerian —2000/60/EE Zuzentaruaren barne— ezarrita dauden gainerako ingurumen-baldintzak betez kudeatzen direla erauzketa-hondakinak.

4. 5. artikulua, 6. artikuluko 3. eta 5. atalak, 7. eta 8. artikulua, 12. artikuluko 1. eta 2. atalak eta 14. artikuluko 1. ataletik 3. atalera artekoak ez dira honako hondakin-instalazio hauetan aplikatuko:

— 2006ko maiatzaren 1a baino lehenago hondakinak jada onartzen ez dituzten instalazioetan,

— agintaritzak eskudunak onartutako Erkidegoaren legeria edo programen edo legeria edo programa nazionalen arabera, ixteko prozedurak amaitzen ari diren instalazioetan, eta

— 2010eko abenduaren 31n behin betiko itxita geratuko diren instalazioetan.

Estatu kideek 2008ko abuztuaren 1aren aurretik jakinaraziko dizkiote kasu horiek Batzordeari, eta haiek bermatuko dute instalazio horiek Zuzentarau honetako helburuak lortzeari kalterik egin gabe kudeatuko direla, bereziki, 4. artikuluko 1. ataleko helburuei eta Erkidegoaren

gainerako legeriari —bereziki, 2000/60/EE Zuzentarauari— kalterik egin gabe kudeatuko direla.

25. artikulua

Zuzenbide nazionalen sartzea

1. Estatu kideek beharrezko legezko xedapenak, arauzko xedapenak eta administrazio-xedapenak jarriko dituzte indarrean, Zuzentarau honetan ezarritakoa 2008ko maiatzaren 1aren aurretik betetzeko. Berehala emango diote horren berri Batzordeari.

Estatu kideek xedapen horiek egiten dituztenean, Zuzentarau honen erreferentzia izango dute xedapenek edo erreferentzia hori izango dute ofizialki argitaratzean. Estatu kideek ezarriko dituzte aipatutako erreferentzia egiteko moduak.

2. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote Zuzentarau honekin araututako eremuan onartzen diren barne-zuzenbideko xedapenen testuak.

26. artikulua

Indarrean jartzea

Zuzentarau hau Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiki egunera jarriko da indarrean.

27. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak Estatu kideak dira.

Estrasburgon egina, 2006ko martxoaren 15ean.

Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,
Presidentea
H. WINKLER

I. ERANSKINA

Istripu larriak prebenitzeko politika eta interesa duten herritarrei jakinarazi beharreko informazioa

1. Istripu larriak prebenitzeko politika

Hondakin-instalazioak istripu larriak izateko arriskuaren parekoa izan behar du erakunde ustiatzaileak istripu larriak prebenitzeko duen politikak eta segurtasuna kudeatzeko sistemak. Politika aplikatzeko garaian, kontuan izango dira honako elementu hauek:

1) istripu larriak prebenitzeko politikak istripu larrien arriskua kontrolatzearekin lotuta erakunde ustiatzaileak ezarritako helburuak eta jarduera-arau orokorrak izan behar ditu bere baitan;

2) segurtasuna kudeatzeko sistemak bere baitan izan behar ditu kudeaketa-sistema orokorraren alderdi hauek: istripu larriak prebenitzeko politika definitzea eta aplikatzea ahalbidetzen duten antolaketa-egitura, ardurak, jarduerak, prozedurak eta baliabideak;

3) honako puntu hauek landuko dira segurtasuna kudeatzeko sistemaren esparruan:

a) antolaketa eta pertsonala: antolaketa-maila guztietan istripu larriak egoteko arriskuak kudeatzen dituzten langileen eginkizunak eta ardurak; langile horien prestakuntza-premia eta prestakuntza horren antolaketa; langileen partaidetza eta azpikontratistena haiek dauden kasuetan;

b) istripu larriak egoteko arriskua zehaztea eta ebaluatzea: funtzionamendua arrunta edo ezohikoa denean gerta daitezkeen istripu larrien arriskua sistematikoki zehazteko prozedurak hartzea eta aplikatzea, bai eta horien probabilitatea eta larritasuna zehazteko prozedurak ere;

c) ustiapenaren kontrola: baldintza seguruetan funtzionatzeko prozedurak eta jarraibideak hartzea eta aplikatzea, eta gauza bera egitea instalazioekin, prozesuekin, ekipoarekin eta aldi baterako etenekin;

d) aldaketen kudeaketa: jada badauden hondakin-instalazioetan edo instalazio berri baten proiektuan egin beharreko aldaketen plangintzarako prozedurak egitea eta aplikatzea;

e) larrialdi-egoeren plangintza egitea: azterketa sistematiko bati esker aurreikus daitezkeen larrialdiak zehazteko prozedurak egitea eta aplikatzea, eta larrialdi-egoera horiei aurre egin ahal izateko larrialdi-planak probatzea eta aztertzea;

f) emaitzen jarraipena: erakunde ustiatzaileak finkatutako helburuak betetzen diren jakiteko ebaluazio iraunkorrerako prozedurak egitea eta aplikatzea, istripu larriak prebenitzeko politikaren eta segurtasuna kudeatzeko sistemaren esparruan, eta bete ezean, ikerketa- eta zuzenketa-mekanismoak ezartzea. Prozeduren barruan sartu behar dira honako hauek: istripu larriak edo tarte txikiarekin saihestu diren istripuak —batez ere babes-neurrietan akatsak egon badira— jakinarazteko sistema, egindako ikerketa eta ikerketaren ondorioz gauzatutako jarduera, iraganeko esperientzia oinarri hartuta;

g) ikuskapena eta azterketa: istripu larriak prebenitzeko politika eta segurtasuna kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna eta egokitzapena aldi-aldi sistematikoki ebaluatze prozedurak egitea eta aplikatzea; aplikatutako politikak izandako emaitzen, segurtasuna kudeatzeko sistemaren eta erakundeko goi-zuzendariak sistema eguneratzeko emandako pausoen azterketa dokumentatua.

2. Interesa duten herritarrei jakinarazi beharreko informazioa:

1) Erakunde ustiatzailearen izena eta hondakin-instalazioaren helbidea.

2) Informazioa ematen duen pertsonaren nortasuna eta kargua.

3) Zuzentarau honen arabera hondakin-instalazioari aplikatu beharreko arazko xedapenak edo administrazio-xedapenak betetzen dituen egiaztapena, eta, bidezkoa bada, 6. artikuluko 2. atalean aipatutako informazio-elementuak agintaritzaren eskudunari eman zaizkion egiaztapena.

4) Instalazioan egiten den jardueraren edo jardueren azalpen argi eta laburra.

5) Hondakin-instalazioan istripu larriren bat eragin dezaketen substantzia eta prestakinen izen arrunta edo generikoa edo substantzia eta prestakinen horien arrisku-mailaren sailkapen orokorra, eta ezaugarri arriskutsu nagusien aipamena.

6) Istripu larria izateko arrisku nagusien izaerari buruzko informazio orokorra, bai eta gertuko herritarrengan eta ingurumenean izan ditzakeen ondorioak ere.

7) Istripu larriren bat egotean, gertuko herritarrei nola ohartarazi eta herritarrek jakinaren gainean nola eduki adieraziko duen informazioa.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- 8) Istripu larriren bat egotean, kaltetutako herritarrek hartu beharreko neurriei eta izan beharreko jarrerari buruzko informazioa.
- 9) Erakunde ustiatzaileak tokian bertan neurri egokiak hartu beharko dituela berresten duen egiaztapena —larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzea barne—, istripu larriren bat egonez gero erantzuteko eta ondorioak ahalik eta txikienak izateko.
- 10) Istripu baten ondorioei istripua gertatutako tokitik kanpora erantzuteko egindako kanpoko larrialdi-planaren aipamena. Larrialdi-zerbitzuek emandako jarraibideak edo aginduak istripuaren unean nola bete jakiteko gomendioak ere sartuko dira.
- 11) Gai horri buruz informazio gehiago nola lortu jakiteko informazio zehaztua. Nolanahi ere, kontuan hartuko dira legeria nazionalean ezarritako konfidentzialtasun-eskakizunak.

II. ERANSKINA

Hondakinen ezaugarriak

Instalazio batean gordeko diren hondakinak instalazioaren egituraren egonkortasun fisiko eta kimikoa epe luzera bermatzeko eta istripu larriak saihesteko moduan bereizi beharko dira. Bidezkoa denean, hondakin-instalazioaren kategoriaren arabera, hondakinen karakterizazioak honako alderdi hauek izango ditu bere baitan:

- 1) epe laburrean eta epe luzean isuri beharreko hondakinen ezaugarri fisiko eta kimikoen deskribapena, eta lurrazaleko baldintza atmosferiko/meteorologikoetan duten egonkortasunaren aipamen berezia, erauzitako mineralaren edo mineralen mota eta erauzketetan mugitzen diren estaldura-lurren eta/edo ganga-mineralen izaera kontuan hartuta;
- 2) 2000/532/EE¹ Erabakian dagokien sarreraren arabera hondakinek duten sailkapena, eta arreta berezia hondakinen ezaugarri arriskutsuei;
- 3) baliabide mineralaren eta bere egonkortasunaren tratamenduan erabili beharreko substantzia kimikoen deskribapena;
- 4) isuri-metodoaren deskribapena;
- 5) hondakinak garraiatzeko erabiliko den sistema.

III. ERANSKINA

Hondakin-instalazioen sailkapena zehazteko irizpideak

Hondakin-instalazio bat A kategorian sailkatuko da, baldin eta:

— hondakin-instalazioaren oraingo tamaina edo etorkizunekoa, kokapena eta ingurumenean duen eragina kontuan hartuta dagoen arriskua ebaluatuta, akats baten edo bidegabeko funtzionamenduaren ondorioz istripu larriren bat gerta badaiteke —esaterako, hondakindegia bat kolapsatzea edo presa bat apurtzea— edo

— 91/689/EEE Zuzentarauaren arabera, arriskutsu gisa sailka daitezkeen hondakinak baditu, maila jakin batetik gora edo

— 67/548/EEE edo 1999/45/EE Zuzentaruaren arabera, arriskutsu gisa sailkatutako substantzia edo prestakinak baditu, maila jakin batetik gora.

¹ Batzordearen 2000/532/EE Erabakia, 2000ko maiatzaren 3koa, 94/3/EE Erabakia aldatzen duena. 94/3/EE Erabakiak hondakinen zerrenda bat ezartzen du, hondakinei buruz Kontseiluak egindako 75/442/EEE Zuzentaruako 1. artikuluko a) letraren eta hondakin arriskutsuei buruz Kontseiluak egindako 91/689/EEE Zuzentaruako (EO L 226 2000.9.6koa, 3.or.) 1. artikuluko 4. atalari jarraiki hondakin arriskutsuen zerrenda ezartzen duen 94/904/EE Erabakiaren arabera. Azken buruan Kontseiluaren 2001/573/EE Erabakiak aldatu zuen Erabakia (EO L 203 2001.7.28koa, 18. or.).